

ONGIZATEA ETA OSASUNA SORTZEN DUEN PARTAIDETZARAKO GIDA

Partaidetza-prozesuetan osasunaren
ikuspegia txertatzeko orientabideak.

ILab Partaidetza Komunitarioa eta Osasuna.

Gida honen garapenean parte hartu dute:

- * Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila;
- * Bilboko Udalak sustatzen duen Kultura arteko komunitateko esku hartze programa (ICI) eta Gazteleku Elkarte;
- * Hernaniko Udaletxea;
- * Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzia.

Prozesuaren Idazkaritza Teknikoa eta Gidaren diseinua:
Solagune, komunitatea eta ikaskuntza.

Itzulpena:
Eusko Jaurlaritzako Itzultzaile Zerbitzua

2020 Uztaila

Ekimenaren esparrua

Euskadi Gobernu Irekirako (OGPren) Nazioarteko Aliantza osatzen duten munduko 20 eskualdeetako bat da. Aliantza horrek, izan ere, gobernu irekiaren munduko kultura bat sustatu nahi du, herritarrek ahaldu eta emaitzak emateko. Horretarako, gobernuak urte anitzeko ekintza-planak aurkeztu behar dituzte, eta horietan, beren administrazioetan gardentasunean eta kontuak ematean, herritarren parte-hartzean eta integritatean aurrera egiteko konpromisoak jaso behar dituzte.

OGP Euskadi 2018-2020 Planean honako konpromiso hau jasotzen da: EAEko administrazio guztientzat eta egitura zibikoarentzat erreferentziazkoa den herritarren parte-hartzean berrikuntza publikoa suspertzeko foro egonkorra eratzea, lortzen diren jardunbide egokiak orokortzeko. Eta jardunbide egoki gisa prestatu da orain aurkezten dugun gida hau.

Gida honek orientazio praktikoko batzuk eman nahi ditu, partaidetza-prozesuak diseinatzean, gauzatzean eta ebaluatzean osasunaren ikuspegia txertatzen dutenak. **Ez da partaidetza-prozesuak sustatzeko gida bat, horretarako beste lan batzuk ere badaude.** Partaidetza-prozesuek komunitateen osasuna eta ongizatea areagotzeko duten potentzialaren ebidentzia egiaztatua hartu da abiapuntu moduan (*erreferentzia bibliografikoak orri-oinetan), eta ekintza komunitarioak diren hiru printzipio sakon aztertu dira: parte-hartzaileen arteko **aniztasuna**, erabakiak hartzeko orduan parte hartzen duten pertsonen **autonomia** eta prozesuan zehar eraikitzen diren **harremanak**. Gobernantza berriaren oinarrietako bat gardentasuna eta kontuak ematea da, eta horiek ere azaltzen dira, barneratuz. Herritarren parte-hartzean, ahalik eta gehien zaindu behar da egiten diren jarduketan gardentasuna, joko-arauak argi egon daitezen, lankidetzaren informaturako behar den informazioa eskura jar dadin, eta gertatutakoaren errealitatea eta haren ondorioen gaineko erantzukizuna parteka daitezen. **Pertsonak, ekimen komunitarioetan parte hartzen dutenean, duten esperientziak eragina du haien ongizatean eta osasun komunitarioan.**

Elkarlanean oinarritutako ekimen honetan parte hartu dute Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak; Bilboko Udalak, Gazteleku Garapen Komunitarioko Elkarrekin eta "la Caixa" Fundazioak sustatu duten Kultura Arteko Komunitateko Esku Hartze Programak; Hernaniko Udalak; Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziak.

Erreferentzia bibliografikoak:

Guía Participación comunitaria: mejorando la salud y el bienestar y reduciendo desigualdades en salud. MSCBS-IACS 2018.

(hemen: <https://portal.guiasalud.es/gpc/participacion-comunitaria/>)

Community engagement: improving health and wellbeing and reducing health inequalities. NICE . NICE Ikerketa Soziologikoen Zentroa 2016. (hemen: <https://www.nice.org.uk/guidance/ng44>



Justifikazioa.

ZER AURKEZTEN DUGU?

Partaidetza-prozesuek komunitateen osasuna eta ongizatea areagotzeko duten potentziala balioesten duen lan-eredu bat.

ZERGATIK AURKEZTEN DUGU?

Osasunaz ari garenean, arreta sanitarioa eta horren inguruan antolatzen den guztia (ospitale-baliabideak eta osasun-zentroak, botikak, etab.) hartzen ditugu kontuan. Ematen du hori dela osasuntsu egoteko, hau da, gaixorik ez egoteko aukera bakarra edo nagusia. Hala ere, azken hamarkadetan gero eta ebidentzia argiagoak metatu dira hezkuntza-, gizarte- eta lan-baldintzatzaileen garrantziari buruz. Pertsonak jaio, hazi, bizi, lan egin eta zahartzen diren inguruabarren arabera da osasuna.

Erabaki tekniko eta politikoek gizartearen parte-hartze eraginkorra izan beharko lukete. Parte-hartze horrek, informazio edo kontsulta hutsetik harago, abiaraztean eta ebaluatzean esku hartzeko aukera emango du, lurralde jakin batean bizi diren pertsonak bakarrik baitakite zer lehentasun eta behar dituzten.

ONGIZATEA ETA OSASUNA SORTZEN DUEN PARTAIDETZARAKO GIDA

Partaidetza-prozesuetan osasunaren
ikuspegia txertatzeko orientabideak



puesta en marcha y en su evaluación, ya que solo las personas que viven en un determinado territorio son conocedoras de sus preferencias y necesidades.

Pertsonok badakigu zein diren gure beharrak, kezak eta nahiak; gai gara on egiten diguna identifikatzeko, eta gure komunitatearekin eta gure ingurune naturalarekin bat datorren bizimodua eraikitzeko.

Lurralde batean bizi diren pertsonen errealitate desberdinak kontuan hartzeak gure gizartean dauden aldeez jabetzea esan nahi du: errentan, hezkuntzan eta oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko aukeretan dauden aldeak. Desparekotasun horiek, azkenean, osasun-arloko desberdintasun bidegabeak eragiten dituzte, nahiz eta saihestu daitezkeen.

Desberdintasun txikienak dituzten gizarteak, bidezkoagoak eta osasungarriagoak dira.

Parte-hartze eraginkor eta egiazkoak auzo eta herrietako jendearen arteko harremanak hobetzea ere badakar, eta herritarren eta administrazioen arteko sare sozialak sortzea sustatzen du; horrek segurtasun handiagoa ematen dio eremu horietan bizi den jendeari.

Halaber, herritarren osasunean eragina dute: gizarte-kohesioaren mailak, baliabide jakin batzuk egoteak edo ez egoteak, nola erabiltzen diren eta horien artean zein lotura-maila dauden.





Erabilgarritasuna.

Zein da gida aurkezteko helburua?

Partaidetza-prozesuek beren helburu propioei/ zehatzei/askotarikoei erantzuten diete, baina horrez gain, lagundu egin dezakete komunitate parte-hartzailearen ongizatea hobetzen eta, oro har, gizartearen osasuna hobetzen.

Duela urte batzuetatik, partaidetza-prozesuak agenda publikoaren parte dira, herritarren eskaerak ezagutzeko eta nola artatu jakiteko teknika gisa (know how). Administrazio publikoak izan ohi dira partaidetza-prozesuen buru, baina komunitateek gero eta ekimen gehiago sortzen dituzte kezka, behar eta desio horiei guztiei aurre egiteko eta komunitate-ikuspegi batetik irtenbidea emateko.

Gidahonenbidez, partaidetza-prozesubatzat gauzatzen duten eragile guztiek, haien izaera edo helburua edozein izanik ere, ebidentzian oinarritutako jarraibide eta gomendio batzuk jarraitu ahal izango dituzte, prozesu horiek hobetzeko, osasunaren eta ongizate komunitarioaren ikuspegitik.

Gainera, partaidetza-prozesuek aukera ematen dute pertsonen beharrak, gaitasunak eta indarguneak identifikatzeko eta aurkitzeko, haiei balioa emateko eta haien artean konektatzeko, prozesu komunitario batean lan egiteko aukera sor dadin.

Zein da gidaren edukia?

Ebidentzian oinarritutako jarraibide eta gomendio batzuk ematen dira, partaidetza-prozesuak gauzatzen dituzten eragileek, haien izaera edo helburua edozein izanik ere, prozesuak hobetzen lagun dezaten, osasun eta ongizate komunitarioaren ikuspegitik.

Horretarako, ekintza komunitarioak funtsezko hiru printzipioak kontuan hartzen lagunduko duten zenbait argibide ematen dira:

- Tokiko komunitatearen ANIZTASUNA bermatzea talde sustatzaileak edo motorrak eratzean eta erabakiak hartzean
- Komunitatearen AUTONOMIA eta autokudeaketarako nahiz antolaketarako gaitasuna sustatzea.
- Enpatia -eta konfiantza- HARREMANAK erraztuko dituzten baldintzak sortzea.

OSASUNA SORTZEN DUEN PARTAIDETZARAKO PRINTZIPIOAK

Aniztasuna

Tokiko komunitatearen aniztasuna bermatzea talde sustatzaileak edo motorrak osatzean eta erabakiak hartzean.

Partaidetza-prozesu batean tokiko behar, indargune eta gaitasun guztiak jasotzeko, prozesuaren buru diren eragileek kolektibo sozial guztien parte-hartzea bermatu beharko dute, batez ere osasun-adierazle okerrenak izateko arrisku handiena dutenen parte-hartzea, ikuspegi desberdinak lortu ahal izateko.

Autonomia

Komunitatearen autonomia eta autokudeaketarako nahiz antolaketarako gaitasuna sustatzea.

Osasuna pertsonak jaio, hazi, bizi, lan egin eta zahartzen diren inguruabarren araberakoabada, lurraldejakin batean bizi diren pertsonen ezagutzen dituzte beren lehentasunak eta premiak. Horregatik da garrantzitsua komunitatearen autonomia-maila handitzen duten gertakari, gertaera edo ekintza guztiak balioestea, bai eta komunitatearen sormena eta autokudeaketa-gaitasuna indartzen dutenak ere.

Harremanak

Enpatia- eta konfiantza-harremanak erraztuko dituzten baldintzak sortzea.

Herritarrek, gizarte zibil antolatuak eta eragile publikoek partekatzen eta konektatzen dituzte interes, behar eta nahi komunak. Loturak eta gizarte-kohesioa indartzeko, garrantzitsua da komunikazioari, entzuteari, negoziazioari eta akordioari lotutako baldintzak ziurtatzea, baita lankidetzak sustatzekoak ere, partaidetza-prozesuan ekarpenak egin ditzaketen pertsonen parte har dezaten, eta ez daitezen beren kabuz baztertu edo ez dezaten prozesua utzi..

JARRAIBIDEAK

Hortik aurrera, **jarraibide** batzuk garatuko ditugu, orientabide gisa balio dezaketenak, begien bistatik ez galtzeko oinarrizko **printzipio** horiek, gure partaidetza-prozesuaren diseinuan eta garapenean.

Orientabide gisa erabil daitezke, prozesua hasi aurretik, hau da, talde edo eragile sustatzaile batek hura defendatzeko eta/edo diseinatzeko orduan.

Gainera, prozesuari buruz hausnartzeko ere balioko dute garatu bitartean edo amaitzean; horrela, baldintzak parte-hartzailearen ongizatean laguntzeko egokiak diren aztertu ahal izango da eta partaidetza-prozesua hobetzeko alderdiak antzemango dira.

Aniztasuna



Komunitatearen aniztasuna aztertzea eta hura ordezkatzen duten pertsonak eta erakundeak identifikatzea.



Komunitateak eta, bereziki, kalteberatasun- eta/edo isolamendu-egoeran dauden taldeek parte hartzeko oztopoak identifikatzea.



Komunitatearen parte-hartzea errazten duten estrategiak ematea.



Haur eta nerabeek partaidetza-prozesuetan parte hartzen dutela bermatzea.



Partaidetza-prozesuaren garapen osoan hizkuntza ez-sexista, inklusiboa, argia eta zehatza erabiltzea.



Partaidetza-prozesuaren talde eragileak osatzean, komunitatearen aniztasuna bermatzea.

Autonomia



Hasieratik argitzea partaidetza-prozesuaren helburua (jakina da zertarako) eta joko-arauak: zer erabaki eta eremuri buruz deliberatzen den zehaztu behar da, bai eta parte hartzen duten eragile guztien erabaki-eta eragin-maila ere.



Tartean dauden eragile guztien artean lan egiteko modu zehatz eta eraginkor bat adostea (jakina da nola).



Partaidetza-prozesuari lotuta dauden tokiko beharrak eta lehentasunak identifikatzea eta jasotzea, kontuan hartu ahal izateko.



Partaidetza-prozesuaren helburuarekin lotutako toki-erakundeen indarguneak eta gaitasunak identifikatu eta jasotzea, balioa emateko, kontuan hartzeko eta prozesuan txertatzeko.

Harremanak



Hasieratik eta partaidetza-prozesu osoan zehar ziurtatzea aipatutako partaidetza-prozesua eragin duen gaiak ukituko dituen pertsona guztiek parte hartzeko aukera izango dutela, baldin eta prozesuari balioa eta ikuspegia eman badiezaioke. Hala ere, komunitateek parte ez hartzeko eskubidea dutela errespetatuko da beti.



Komunitateko sareekin eta erakundeekin lana kontuan hartzea, bereziki sortu berriekin.



Partaidetza-prozesuan parte hartzen duten pertsonen artean komunikazioaren eta entzute aktiboaren kalitatea bermatzea.



Tokiko aniztasuna islatuko duen txandakako bozeramailetza partekatua osatzea.



Prozesuan zehar sortu diren ezagutza guztiak partekatzea eta intereseko beste eragile batzuei ematea, ikaskuntza-prozesu partekatua ere izan dadin.



Parte hartzen duten eragileen artean batera sortzeko estrategiak (ekintza berriak) babestea, hala badagokio, elkarrengandik ikasteko komunitatea eratzeke.



Tartean dauden eragile guztiek batera lan egitea partaidetza-prozesuaren ebaluazioan.

Honaino oinarrizko eskema bat eman dugu, partaidetza-prozesu bat bertan parte hartzen duten pertsonentzat osasungarria izaten lagun diezaguketen funtsezko alderdiak biltzen eta laburbiltzen dituen.

Hurrengo kapituluetan baldintza horietako bakoitzean sakonduko da eta xehetasun gehiago emango dira. Partaidetza-prozesu bakoitzaren konplexutasunaren arabera, mekanismo batzuk edo besteak antolatuko dira printzipioak bete ahal izateko.

ANIZTASUNA

Zer egin dezakegu aniztasuna bermatzeko?



Komunitatearen aniztasuna aztertzea eta hura ordezkatzeko duten pertsonak eta erakundeak identifikatzea.

- ➔ Agerian geratu behar dira partaidetza-prozesurako beharrezkoak diren ikuspegiak edo kolektiboak:
 - ▣ Partaidetza-prozesuaren xede den gaiak modu positiboan zein negatiboan eragingo dien pertsonak.
 - ▣ Ekarpinak egin ditzaketen pertsonak, nahiz eta zuzeneko eraginik ez izan.
- ➔ Komunitatearen aniztasuna aztertu behar da, aniztasun hori ordezkatzeko duten eta partaidetza-prozesura gonbidatu behar diren eragileak identifikatzeko.



Komunitateak eta, bereziki, kalteberatasun- eta/edo isolamendu-egoeran dauden taldeek parte hartzeko oztupoak identifikatzea.

- ➔ Komunitateak eta, bereziki, kalteberatasun- eta/edo isolamendu-egoeran dauden taldeek parte hartzeko egon daitezkeen oztupoak dira. Mugak:
 - ▣ Ordutegiari lotuta.
 - ▣ Ekonomikoak eta/edo lanekoak.
 - ▣ Kognitiboak: hizkuntza, hizkuntza teknikoak edo eskuraezinak, etab
 - ▣ Fisikoak: sarbideak, mugikortasuna, desplazamendua, landa-ingurunea, hiri barruko periferia, besteak beste.
 - ▣ Bizitza pertsonala eta lana uztartu beharra.
 - ▣ Desinformazioa, interes falta eta aurreiritziak.
 - ▣ Identifikatu ahal izan diren eta gida hau prestatzen lagunduko duten beste batzuk.

Komunitatean gerta daitezkeen ekitate-gabeziako egoerei aurre egiteko, komenigarria da kolektibo guztiak ezagutzea, gizarte-desberdintasunaren ardatzen arabera.

- ▣ Lurraldea (komunitatean isolamendu geografiko, urbanistiko edo arkitonikoren bat duten pertsonak).
- ▣ Etnia (komunitatean dauden gutxiengo etniko edo kulturalak).
- ▣ Generoa (emakumeak).
- ▣ Maila sozioekonomikoa eta hezkuntza-maila (diru-sarrera gutxi, hezkuntza-maila txiki edo maila sozioekonomiko txiki pertsonak).
- ▣ Adina (adin-talde desberdinak).
- ▣ Jaioterria eta migrazioa.
- ▣ Aniztasun funtzionala.
- ▣ Sexu-orientazioa eta genero-identitatea.
- ▣ Ideologia edo sinesmen erlijiosoak (ideologia edo sinesmen erlijioso minoritarioak dituzten pertsonak).

aniztasuna



Komunitatearen parte-hartzea errazten duten estrategiak ematea.



➡ Batez ere egoera ahulean dauden taldeen parte-hartzea errazten duten komunikazio-estrategiak bilatzen eta eskaintzen dira.

- Haurren laguntzarekin diseinatutako edo egiaztatutako komunikazioa.
- Komunikazio partekatua askotariko espazioetatik: farmazietatik, osasun-zentrotik, tokiko saltokietatik, kultu-lekuetatik...
- Komunitate osoari gonbidapena.
- Bandoa udalerriko atari guztietan.
- Zozketa modu demokratikoan.
- Parte hartzeko aurretiaz izena eman (osasun-zentroetan...).
- Tokiko enpresak (parte-hartze orduak).
- Gizarte-sarea eta erakunde komunitarioak

Errepasatu pista hauek:

Genero-indarkeriaren biktimak.
Aniztasun funtzionala.
Mendeko pertsonak.
Mugikortasun urriko pertsonak.
Gizarteratzeko programetan dauden pertsonak.
Atzerriko jatorria duten pertsonak.
Adineko pertsonak.
Haurrak eta/edo gazteak.
Emakumeak.
Kalteberatasun ekonomiko eta sozial-
leko beste egoera batzuk.

➡ Parte-hartzerako identifikatutako beste oztopo batzuei erantzungo dieten estrategiak bilatzen eta eskaintzen dira

➡ Komunitatean erreferente diren pertsonak identifikatzen dira, egoera ahulean dauden taldeetara iristeko.
Pertsona horien ezaugarriak:

- Pertsonen arreta ematen dien zerbitzu publiko batean (udalekoa edo forala) lan egiten dute.
- Pertsonen arreta ematen dien elkarte batean lan egiten dute.
- Pertsonak aholkatzen eta artatzen dituen boluntario-talde batean parte hartzen dute.
- Erreferente dira komunitatean, egoera ahulean dauden taldeei egiten dieten lanagatik eta ematen dieten laguntzagatik.
- Erantzukizun sozial korporatiboko plana duen enpresa batekoak dira.
- Konpromiso soziala duen erakunde pribatu batekoak dira.



Haur eta nerabeek partaidetza-prozesuetan parte hartzen dutela bermatzea.

➡ Hizkuntzak egokitu egiten dira, parte hartzeko tresna egokiak garatu dira eta beren inguruneetan zabaldu dira:

▣ Udal-liburutegia.

▣ Kultur gela.

▣ Ludotekak.

▣ Gaztegunea.

▣ Osasun-zentroak.

▣ Kiroldegia.

▣ Ikastetxeak.

▣ Beste udal-espazio batzuk.



Prozesuaren garapen osoan hizkuntza ez-sexista, inklusiboa, argia eta zehatza erabiltzea.

➡ Komunitatean dauden hizkuntzen aniztasuna kontuan hartzen da.

➡ Publizitate eta komunikazio ez-sexistarako kode deontologikoa jarraitzen da.

➡ Ikusmen- edo entzumen-mugak kontuan hartzen dira.

➡ Komunitateko ekimenei eta partaidetza-prozesuei buruz sortutako informazioa kontrastatu egiten da herritarren hainbat sektoreekin:

▣ Lehen eta/edo Bigarren Hezkuntzako ikasleekin.

▣ Adineko pertsonekin.

▣ Atzerriko jatorria duten pertsonekin.

▣ Dibertsitate funtzionala duten pertsonekin.

▣ Emakumeekin.



Prozesuaren talde eragileak osatzean, komunitatearen aniztasuna bermatzea.

➡ Partaidetza-prozesuaren talde eragileek komunitatearen aniztasuna islatu behar dute, kolektibo guztiak kontuan hartuta, eta desberdintasun sozialaren ardatzetan oinarrituta.



ANIZTASUNA

AUTONOMIA

Nola sustatu komunitatearen autonomia eta autokudeaketarako nahiz antolaketarako gaitasuna?



Hasieratik argitzea partaidetza-prozesuaren helburua (jakina da zertarako) eta joko-arauak: zer erabaki eta eremuri buruz erabakitzen den zehaztu behar da, bai eta parte hartzen duten eragile guztien erabaki- eta eragin-maila ere.

- ➡ Tartean dauden eragile guztiek ezagutzen dute partaidetza-prozesuaren hasierako helburua.
 - Hizkuntza komuna adostu dute.
 - Proiektuaren helburuak eta xedeak batera ezarri dira.
 - Partaidetza-prozesuaren ibilbide-orria ezagutzen da.
- ➡ Joko-arauak adostuak eta publikoak dira, eta hemen eskura daitezke:
 - Plataforma digitalak.
 - Material inprimatua.



Tartean dauden eragile guztien artean lan egiteko modu zehatz eta eraginkor bat adostea (jakina da nola).

- ➡ Batera adostuda lanerako eredua.
 - Aurrez aurreko topaketak, saioak eta tailerrak planifikatu dira.
 - Online espazio bat sortu da, partaidetza-prozesu orotan ideia eta ekarpen berriak jaso ahal izateko.
 - Baliabide digitalik gabeko espazio bat ezarri da, ideia eta ekarpen berriak jaso ahal izateko (udal-baliabideak aprobetxatuz, ahal den guztietan).
- ➡ Elkarrekin adostudira partaidetza-prozesuan erabili beharreko komunikazio-bideak:
 - Topaketak, tailerrak eta/edo lan-saioak online egiteko deialdiak.
 - Aurrez aurreko topaketak, tailerrak eta/edo lan-saioak antolatu dira, baliabide digitalik ez duten edo horiek gabe lan egitea nahiago duten pertsonentzat.
 - Saio, topaketa eta lantegien itzulketak online.
 - Saio, topaketa eta lantegien itzulketak inprimatuak, baliabide digitalik ez duten edo horrela lan egitea nahiago duten pertsonentzat.
 - Aldizka komunikazioak egin behar dira online.
 - Aldizkako komunikazio inprimatuak prestatuko dira baliabide digitalik ez duten edo nahiago duten pertsonentzat.
- ➡ Zereginen arduradunak ezagutuko dira.




Dagokion partaidetza-prozesuari lotuta dauden tokiko beharrak eta lehentasunak identifikatzea eta jasotzea, kontuan hartzeko.

- ➡ Partaidetza-prozesuarekin lotutako beharrak eta lehentasunak identifikatzeko bideak ezarri dira tokiko komunitateekin.
 - Lan-saioak.
 - Online espazioak (plataforma).
 - Postontziak.
 - Beste batzuk.
- ➡ Dokumentu batean jaso/jasotzen dira tokiko komunitateen beharrak eta lehentasunak.
- ➡ Identifikatutako tokiko komunitateen beharrak eta lehentasunak partaidetza-prozesuan sartu/tzen dira, fase guztietan:
 - Plangintza.
 - Martxan jartzea.
 - Ebaluazioa.



Partaidetza-prozesuaren helburuarekin lotutako toki-erakundeen indarguneak eta gaitasunak identifikatu eta jasotzea, balioa emateko, kontuan hartzeko eta prozesuan txertatzeko.

- ➡ Partaidetza-prozesuari lotutako indarguneak eta gaitasunak identifikatzeko bideak /ezartzen dira tokiko komunitateekin.
 - Lan-saioak.
 - Online espazioa (plataforma)
 - Postontziak.
 - Beste batzuk.
- ➡ Dokumentu batean jasotzen dira tokiko komunitateen indarguneak eta gaitasunak.
- ➡ Identifikatutako tokiko komunitateen indarguneak eta gaitasunak partaidetza-prozesuan / sartzen dira, fase guztietan:
 - Plangintza.
 - Martxan jartzea.
 - Ebaluazioa.
- ➡ Lehendik dauden ekimenak identifikatzen dira, partaidetza-prozesuarekin sinergiak sortzeko eta haien balioa nabarmentzeko.
 - Beste pertsona batzuk gonbidatzen dira, egin dutena azaldu dezaten.



AUTONOMIA

HARREMANAK

Nola bermatu kalitatezko harremanak?



Hasieratik eta partaidetza-prozesu osoan zehar ziurtatzea aipatutako partaidetza-prozesua eragin duen gaiak ukituko dituen pertsona guztiek parte hartzeko aukera izango dutela, baldin eta prozesuari balioa eta ikuspegia eman badiezaioke. Hala ere, komunitateek parte ez hartzeko eskubidea dutela errespetatuko da beti.



(Ikusi 12. orrialdeko egitura)



Partaidetza-prozesuan parte hartu duten pertsonen jarraipena egiten da, haien jarraipena ziurtatzeko asmoz:

- ▣ Banan-banan zenbatzen dira prozesuko saio guzti-guztietan parte hartu duten pertsonak.
- ▣ Pertsona guztien parte-hartzea eragotz dezaketen arazoak eta beharren jarraipena egiten da.
- ▣ Pertsona guztien parte-hartzea errazteko alternatiba berritzaileak aurreikusi, bilatu eta proposatzen dira.



Nork bere burua baztertzeko eta partaidetza-prozesua bertan behera uzteko arrazoiak identifikatzen dira.

- ▣ Interesik ez edo interesa galtzea.
- ▣ Ezagutzarik edo informaziorik ez.
- ▣ Ordutegiak ez dira bateragarriak bizitza pertsonala eta lana uztartzearekin.
- ▣ Askotarikoak diren pertsonen irisgarritasunerako egokiak ez diren espazioak: lekualdatzea, irisgarritasuna...
- ▣ Pertsona guztientzat irisgarriak ez diren lan-saioak: hizkuntza teknikoak, adin-aniztasuna, dibertsitate funtzionalak...
- ▣ Norberaren gaitasunen autopertzepzio txikia.
- ▣ Ez ditu itxaropenak betetzen.
- ▣ Partaidetza-prozesuan zehar aztertuko diren beste arrazoi batzuk



Tokiko komunitateek beren borondatearen edo aukeraren arabera parte hartzeko duten eskubidea errespetatzen da, baita inplikaziorik ez izateko eskubidea ere.

harremanak



Komunitateko sareekin eta erakundeekin lana kontuan hartzea, bereziki sortu berrieekin .

- ▣ Partaidetza-prozesuari buruzko informazioa ematen zaie.
- ▣ Partaidetza-prozesuaren hainbat unetan parte hartzera gonbidatzen dira: komunikazioa eta sentsibilizazioa, eragile aktiboa saio jakin batzuetan, talde eragilean parte hartzea, fase jakin batzuen buru izatea, etab.
- ▣ Sare eta erakundeekiko lankidetzak modu publikoan jaso eta dokumentatzen da.



Partaidetza-prozesuan parte hartzen duten pertsonen artean komunikazioaren eta entzute aktiboaren kalitatea bermatzea.



Honako hauetarako gakoak ematen dira:

- ▣ Entzute aktiboa eta elkarrizketa eraginkorra lantzea.
- ▣ Hizkuntza komuna eta eskuragarria eraikitzea.
- ▣ Erabakiak taldean hartzeari buruzko teknikak ezagutzea.
- ▣ Interes-gatazken kudeaketa, eta negoziazioa eta akordioa.



Tokiko aniztasuna islatuko duen txandakako bozeramailetza partekatua osatzea.



Bozeramailetza partekatua eta txandakakoa sustatzen da, partaidetza-prozesuan parte hartzen duen komunitatearen aniztasuna islatuko duena.





Partaidetza-prozesuan zehar sortu diren ezagutza guztiak partekatzea eta intereseko beste eragile batzuei ematea, ikaskuntza-prozesu partekatua ere izan dadin.

- ➡ Topaketa ireki baterako deia egiten zaie herritar guztiei, sortutako ezagutzak modu publikoan partekatzeko asmoarekin.
- ➡ Identifikatutako intereseko beste eragile batzuei topaketa baterako deia egiten zaie, sortutako ezagutzak herritarrekin batera alderatzeko.
- ➡ Hainbat eragilek partaidetza-prozesuaren emaitzei buruz egindako atzeraelikadura-proposamenak jaso eta dokumentatzen dira.



Parte hartzen duten eragileen artean batera sortzeko estrategiak babestea, hala badagokio, elkarrengandik ikasteko komunitatea eratzeko.

- ➡ Autonomia, lankidetzak, estrategia berrien kudeaketa eta sorkuntza eta sareak eta ekimenak sustatzen dituzten denborak eta espazioak sustatzen dira.



Partaidetza-prozesuaren ebaluazioa tartean dauden eragile guztien artean lantzea.

- ➡ Prozesua ebaluatzeko adierazleak eta moduak definitzen dira.



HARREMANAK

ONGIZATEA ETA OSASUNA SORTZEN DUEN PARTAIDETZARAKO GIDA

Partaidetza-prozesuetan osasunaren
ikuspegia txertatzeko orientabideak.